



**KALITATE
BEREIZIKO
KONTROL
SISTEMAREN
2013KO
TXOSTENA
KB**

2013an nekazaritza- eta elikadura-kontroleko 5 ikuskapen egin ziren in situ Gernikako Piperra Adierazpen Geografiko Babestuko (AGB) ontziratzaile etiketatzaileetara, bai eta Jamón Serrano Bermatutako Espezialitate Tradizionalera (BET) atxikitako operadore batera ere. Era berean, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak bi ikuskapen egin ditu Hazi Fundazioa egiaztapen-erakundean, Gernikako Piperra AGBren baldintza-agiria eta Euskal Okela AGBren agiria egiaztatze erakundea den aldetik. Ikuskapen horretan agirizko kontrola egin zaie 12 abeltzaintza-ustategiri, 3 pentsu-fabrikari, hiltegi bati, zatitze-gela bati, merkataria bati, hiru haragitegiri eta salmenta zuzeneko gune bati.

	TAULA. EGIAZTAPEN-PROGRAMA BETETZEA					
AGB/BJD	PROGRAMATUTAKO EGIAZTAPEN-KOP.		EGINDAKO EGIAZTAPEN-KOP.		EGIAZTAPEN-PROGRAMAREN BETETZE-MAILA (%)	
	AGIRIZKOAK	IN SITU	AGIRIZKOAK	IN SITU	AGIRIZKOAK	IN SITU
Gernikako Piperra		5	0	5	-	%100,00
Euskal Okela	22		22	0	%100	
Guztira	22	5	22	5	-	%100

Gernikako Piperra AGB:

Egindako kontrolen emaitzak aztertu ondoren, beharrezkoa dirudi baldintzen agiriko alderdi batzuk berrikustea, eguneratzeko eta produktuaren hazkuntzaren eta manipulazioaren errealitatera moldatzeko.

Euskal Okela AGB:

Produktuaren deskribapenari dagokionez, egiaztapen-erakundeak egindako erregistroetako datuak hobetzeko beharra hauteman da, ustategietako animalien genetika-datuei dagokienez, bereziki, AGBan onartutako arrazen egiaztapena eta pleguaren babesa duten arrazen gutxieneko genetika-ehunekoa %50ekoa dela bermatzeko.

HAZIK AGB operadoreetan egindako kontrolek emaitza hauek izan zituzten:

	Uniberts oa	Kontrol atutako uniberts oa guztira	Ez- betetzeak dituzten operadore- kop. guztira	Irregularita sun-kop.	Ez- betetze n kopurua	Ez- betetze n kop. guztira	Ez-betetzeak dituzten operadoreen ehunekoa	Ez-betetzeak dituzten kontrolatutako operadoreen ez-betetze indizea	Ez-betetzeen ehunekoa ez-betetze motaren arabera	
	A	B	C	D	E	F= (D+E)	G= (C/ B X100)	H= (F/ C)	I= (D/Fx10 0)	J= (E/Fx100)
Gernikako Piperra AGB	11	11	0	0	0	0	0,00	-	-	-
Euskal Okela AGB	225	230	10	10	0	10	4,35	1,00	100	0
Guztira	236	241	10	10	0	10	4,15	1,00	100	0

Hautemandako ez-betetzeak ez ziren irregularitasuntzat ez eta ez-betetzetzat jo, operadoreek ezarritako neurri zuzentzaileak egokiak izan baitziren.

Euskal Autonomia Erkidegoko bermatutako espezialitate tradizionalei lotutako kalitate bereiziko kontrolei dagokienez, egindako ikuskapenean ez da gorabeherarik izan.